

latu kontzeptual eta postminimalistak eta Euskal Herriko eskulturaren lengoaien herentzia alderatzen dira. Postmodernitatearekiko topaketa horretan, artistak lan-corpus bat definituko du, materialen kontrasteak eta diskurtsoaren koherentziak baldintzatuta. Azkenik, aipatzekoa da XX. mendeko artearen historiaren ezagutza sakonak eta Euskal Herriko Arte Ederren Fakultatean eskultura-irakasle gisa —1987. urteaz geroztik irakasle da bera bertan— egindako lanak zeharkatzen dutela ekoizpen hori.



Izenik gabe / Sin título,
(Valla), 1986

2019.11.09
2020.05.03

artium.eus
Frantzia Kalea / Calle Francia 24
01002 Vitoria-Gasteiz

Artium araba
álava
Arte Garaikideko
Eusko Centro-Museoa
Centro Museo Vasco
de Arte Contemporáneo

ES KULTURA

Elena
Mendizabal

Erakusketak honek ibilbide luzea egiten du Elena Mendizabal (Donostia, 1960) artistaren lanean barrena, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamar-kadetetan ekoiztitako lana xede hartuta.

Erakusketaren izenburuak adierazten duenez, eskultura izan da artistak bere lana garatzeko erabili izan duen bitarteko nagusia, baina noizean behin, argazkia, marrazkia eta collagea ere erabili ditu, eta horietatik ere lan esanguratsuak daude ikusgai.

Erakusketak hirurogeita hamar artelan baino gehiago biltzen ditu Museoko aretoetan, eta baita dokumentuak eta argazkiak ere. Ikerketa horrek haren ibilbidean dauden alderdi eta interes batzuk eta besteak ezagutzeko aukera ematen digu. Artistaren obra berriaren testuinguruari eskainitako hasierako gune baten ondoren, erakusketa-proiektu hau artistak bere praktika eratu zuen urteetan barneratzen da, Euskal Herriko testuinguru artistikoak irakidura eta ikusgarritasun handia izan zuen garai historiko baten berrirakurketa erraztuz.

Kartoiarekin, plastilinarekin, lokatzarekin eta horien tankerako materialetan egindako formatu txikiko eskulturen konstelazio batek egiten dio harrera bisitariari. Eskultura horiek eskema afektibo eta kognitiboetara daramaten patroiak osatzen dituzte. Lan horien artean, plastilinez egindako piezak, 2016tik 2017ra bitartekoak, Mendizabalen aurreko laneetan zeuden interesekin lotzen dira. Lan horietan, giza gorputzak presentzia erabakigarria izan zuen. Gune berean, erai-kuntza-kutsu indartsuak dituen kartoiz egindako pieza multzo bat proposatzen du artistak. Zeramika multzo batek eta bi dimentsioko hainbat obrak osatzen dute erakusketaren kapitulu hau.

Denboran jauzi bat eginda, ikonikoki edo metaforikoki Mendizabalen proposame-

nak eskulturaren tradizio minimalista eta konstruktiboan irudi figuratiboekin eta hainbat eremutatik datozen erreferentzia formalekin (diseinua edo arkitektura, esaterako) lotzen hasten diren uneari dagozkion beste lan sail batzuk erakusten ditu erakusketak. Abstrakzioaren forma geometriko biluzietatik aldentzen dira lan horiek, eta izenburuetan *Melena*, *Valla* edo I. G. (*Mueble vasco*) objektuak aipatzen dituzte, besteak beste.

1989an, Bartzelonako La Caixa Fundazioaren Montcada Aretoan parte hartu zuen erakusketa batean, Alberto Oyarzabal eskultorearekin batera. Oraingo honetan, gune nagusi bat hartzen du erakusketa hartan aurkeztutako lanen sorta esanguratsu batek. Pieza horietan, lorea darabil lehendabizi metalez eta ondoren zurez egindako eskultura-egitura abstraktuak garatzeko. Lan horiek, aldi berean, altzari edo idulkitzat ere har daitezke: *Jardín*, *Jardín americano*, edo *Flor* izeneko zenbait obra, 1988 eta 1989 artean eginak.

Hurrengo urteetan, bere ikerketa formalean, material tradizionalekin batera ezusteko elementuak erabiltzen hasi zen modu ausartean, hala nola paper margo-tua, formika edo argi elektrikoa. Osagai horiek eskulturaren esperientzia egunerokotasunera hurbiltzeko balio dute. Aldi horretakoak dira, orobat, artistak irudi zatikatuetan, mihizatuetan eta, batzuetan, aurreko eskulturen erreproduktioak datozen irudietan oinarrituta ekoizten dituen beste lan batzuk.

Erakusketako lan goiztiarrenak, 1982. eta 1984. urteen artekoak, aldi horretan gertatzen ziren lan-testuinguruaren eta elkarriketa gurutzatuen berri ematen dute, besteak beste, objektuaren analisi kontzeptual eta semiotikoarekin eta artistak gizartearen duen eginkizunarekin lotutakoak. Pieza horietan, unean uneko nazioarteko artearen diskurtsoen postu-

Esta exposición realiza un amplio recorrido por la producción de la artista Elena Mendizabal (San Sebastián, 1960), tomando como objeto la obra realizada en las décadas de los años ochenta y noventa.

La escultura, tal y como indica el título de la muestra, ha sido el medio principal en el que la artista ha desarrollado su trabajo, también desplegado, puntualmente, a través de series de fotografías, dibujos o collages, de los que la exposición incorpora piezas significativas.

Esta muestra, que reúne en las salas del Museo más de setenta obras, incluye asimismo documentos y fotografías, en una investigación que nos permite recorrer distintos aspectos e intereses presentes en su trayectoria. Tras un espacio inicial dedicado a la contextualización de su obra más reciente, el proyecto ahonda en los años en los que la artista configuró su práctica, facilitando la relectura de un periodo histórico en el que el contexto artístico del País Vasco contó con una importante efervescencia y visibilidad.



Recibe al visitante de la exposición una constelación de esculturas de pequeño formato realizadas en materiales como el cartón, la plastilina o el barro. Dichas esculturas configuran distintos patrones, que remiten a esquemas afectivos y cognitivos. Entre estos trabajos, las piezas realizadas en plastilina, fechadas entre 2016 y 2017, conectan con intereses presentes en trabajos anteriores de Mendizabal, en los que el cuerpo humano adquirió una presencia determinante. En el mismo espacio, la artista propone un grupo de piezas con fuertes evocaciones constructivas realizadas en cartón. Un conjunto de cerámicas y varios ejemplos de obra bidimensional completan este capítulo de la muestra.

En un salto en el tiempo, la exposición recorre otras series de trabajos que pertenecen a un momento en el que las propuestas de Mendizabal comienzan a vincular, ya sea icónica o metafóricamente, la tradición minimalista y constructiva de la escultura con imágenes figurativas y con referencias formales que provienen de distintos campos, como son el diseño o la arquitectura. Son trabajos que se alejan de las formas geométricas desnudas de la abstracción y que incluyen en sus títulos menciones concretas a objetos como *Melena*, *Valla* o *S. T. (Mueble vasco)*...

En el año 1989, la artista participa en una muestra en la Sala Montcada de la Fundación La Caixa de Barcelona, junto al también escultor Alberto Oyarzabal. Una selección significativa de las obras presentadas en aquella exposición ocupa un espacio central del recorrido. Se trata de piezas en las que el tema de la flor se convierte en motivo para el desarrollo de estructuras escultóricas abstractas realizadas primero en metal y luego en madera pintada que, al mismo tiempo, pueden ser leídas como elementos-mueble o peanas: *Jardín*, *Jardín americano*, o varias obras con el título *Flor*, realizadas entre 1988 y 1989.

En años posteriores, la investigación formal desarrollada por la artista comienza a incluir de manera desinhibida, junto a los materiales tradicionales, elementos imprevistos como son el papel pintado, la formica o la luz eléctrica, componentes que actuarán como resortes para acercar la experiencia de la escultura a lo cotidiano. Pertenecen también a este periodo otros trabajos en los que la artista produce obras a partir de imágenes fragmentadas y ensambladas que, en ocasiones, provienen de la reproducción de esculturas anteriores.

Las obras más tempranas incluidas en la exposición, fechadas entre los años 1982 y 1984, dan cuenta del contexto de trabajo y los diálogos cruzados que se sucedían en el periodo, entre otros, los vinculados con el análisis conceptual y semiótico del objeto y el papel del artista en la sociedad. En estas piezas se confrontan los postulados conceptuales y postminimalistas de los discursos del arte internacional del momento con la herencia de los lenguajes de la escultura en el País Vasco. Un encuentro con la postmodernidad desde el que la artista irá definiendo un corpus de trabajo, determinado por el contraste de materiales y por una coherencia discursiva. Por último, cabe subrayar que esta es una producción atravesada por su profundo conocimiento de la historia del arte del siglo XX, así como por su labor como docente de escultura en la Facultad de Bellas Artes del País Vasco, donde impartió clases desde el año 1987.



Con oreja, 1990

Izenik gabe / Sin título, (*Caja metafísica con asa*), 1983